

AITA LINO AKESO OLIBARES

Karmeldar honek, Ordenako Lehen Araudian jasoten den honako egindu zorrotz hau “lanik egiten ez duenak ez dezala jan” bizitzako abiabide eta helburu egin eta zehatz bete zuen bizitza luzean zehar oso lan oparoa eskainiz.

Hainbat urtetan zehar, Patrologia eta Karmengo Ordenaren historia irakatsi izan zituelarik, antzinako monjeen iturriak hurbil-hurbiletik ezagutzerakoan, beraien lan egiteko eraz liluraturik, nonbait, bizitza osoa, heurak eredutzat hartuz, gelako isiltasunean zein liburu arteko hauts eta, sarritan, baita bere, sits artean igaron zuen. Eta, guzti hori, fraide bizitzako eguneroko gainerako betebeharrak alde utzi barik.

Egun barruko ordu eta minutuei etekin handiena ateratzen jakin izan zuen, beti esku artean irakurtzeko zerbaite (liburu, aldizkari, txosten, paper, egunkariaren bat...) edota luma tinta zeriola paperean, hara eta hona, idatzi eta idatzi zerabilela. Horrela iragan izan zituena, ia konturatu barik, buru-belarri, oso gogoko zuen lanean bizitzako urte luzeak. Sarritan, hala baina, nekearen nekez jota geratu arte lan egingez. Berarentzat egun barruko tarte guztiak ziren erabilgarriak.

Labur-labur esateko erle maratsaren antzera, hor-hemenka tantaka-tantaka jasotako aberastasun guztiak eskaini dizkigu ezti eder eginda hainbat liburu eta idazlanetan.

Dena den, aurkezpen labur eta orokor hau egin ostean, jo dezagun beraren bizitzako gorabehera nagusien berriak gogora ekartzera, beraren lanaren zertzeladak azaltzera.

Ez zait oso neketsu egin jarraian gogora ekartzen dizkizuedan datu guztiok pilatzea. Zorionez, Aita Lino Akesoloren datu biografiko zehatzak ditugu urte gutxi direla, *Karmel* aldizkariak *Karmel Sorta*-n beraren *Idazlan guztiak* (bi liburuki) argitaratzerakoan bildu eta aurkeztuak.

1. DATU BIOGRAFIKOAK

Lino Akesolo Olibares, Dimako Oba auzoan jaio zen 1911.eko apirilaren 7an. Beraren gurasoak Antonio Akesolo Bikarregi (dimostarra) eta Praxedes Olibares

Intxaurbe (Zeanitarra) izan ziren. Obako etxalderik handieneko seme nagusia izan zen. Umetzarako lehen hamar urteak etxean egin zituen eta Obako auzo eskolara joan zen.

Hamar urte zituela joan zen Larreako Karmeldarren ikastetxera, 1921.eko azaroaren 23an, bertan burutu zituela Humanistikako ikasketak. 1926.eko abuztuaren 10ean hartu zuen Karmeldar habitua (ondo dakizenez, aldiak aldatu badira ere, beti aldean izan duena) Larreako nobiziatuan eta 1927.eko abuztuaren 14ean egin profesioa.

Hurrengo ikasturtean, 1927-1928, Humanistikako ikasketak egiten jarraitu zuen Markinan.

Jarraian hiru urte egin zituen Gasteizen Filosofia ikasten (1928- 1931) eta lau Begoñako Karmelon Teologiako ikasketak egiten (1931-1935). Karmelon bertan egin zen apaiz 1934.eko uztailaren 8an.

Pertsona azkarra izan behar zuen gure mutilak, karrera amaitu osteko urtean, 1935.ean, Zornotzako ikastetxeko irakasle izendatu zuten eta; eta, era berean, 1836.ean *Karmengo argia* aldizkariaren zuzendari.

Gerra zibila sortu zenean soldadutzara joan behar izan zuen kaperau zereginetan ihardun zuelarik. Atxilotua izan ondoren gartzelan sartu zuten eta 1937.eko uztailaren 30eko gerra-uzitegian; fiskalak 12 urtetako kartzela-zigorra eskatu arren 16 urtetakoa eman zioten. Delitu handi gisa, beste gauza batzuren artean *Karmengo argia* aldizkariaren zuzendari izatea leporatu zioten. Honela kontatzen dizkigu berak auzitegiko gorabeherak: “ain zuzen auzitegira eroan eben militarrek eta *Karmen'go argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera: ‘Ya ven’ –esaten eban gogor salatzailleak— Karmengo Arjia (olan esaten eban berak), ‘hasta el título es separatista’. Orra berak autortu eta salatu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: euskerea bera zan euren arerioa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nahi izan nebanean, maipurukoak: ‘Calle y siéntese’. Eta fiskalak amabi urteko espetxea eskatzen eban arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan” (*Idazlan guztiak*, 35. orr.)

Auzitegian emandako epaia leku ezbedinetan bete zuen: gartzela bihurturik zen Begoñako Karmelon, Langraiz-en, Venta de Baños-en eta Karmona-n, 1940.ean askatua izanik. Hala ere, ondoko lehen urteetan ez zuen Euskal Herriko komentuetara etortzerik izan. Lehenengo, Kantabriako Hoz de Anero-ko komentuan bizi zen, Karmeldarren artean basamortu izenez ezagutzen zen hartan (1940-1941); gero, Iruñera (gobernarien ustetan Euskal Herritik kanpo zegoen) joan zen (1941-1943); bi hilabete Zornotzan egin zituen eta beste bi hilabete t’erdi Korellan. Azkenik, aldi luzeagoa (1944-1948) Kantabriako El Soto-ko etxean.

Teologiako irakasle izendatua izanik, Gasteizera joan zen 1948.ean ikasturtearen amaiera arte eta hemendik Begoñako Karmelora ikasturte berrirako: orduetik aurrera Begoñan egingo ditu bere bizitzako urterik gehienak, guztira 37 urte: 21 urte, Donostiako nagusi (1969-1972) izendatu aurretik eta beste 16 Markinako nagusi izatea (1972-1975) utzi ondoren.



Egin-eginean ere, 1975.ean itzuli zen Begoñako Karmelora, Hiztegiaren lan handiari ekitera. Ordurako hasia zuen lana, Markinan egon zenean. Eta, data horretatik aurrera Karmelon egin ditu jarraiko bere bizitzako gainerako jarraiko 16 urteak 1991.eko irailaren 17an hil zen arte.

2. BIZITZAKO UNE GARRANTZITSU BATZU

Jarraian beraren bizitzan eta burututako lanean eraginik izan duten gertakari edo une batzu gogoera ekarri nahi ditut, horrek beraren bizitzako ibilbidea ulertzeko argia eskainiko digu eta:

1. Obako auzo eskola: Maisu euskalduna izan zuen, euskara izan zelarik beraren lehen eskola hizkuntza. Honetaz gainera Alejandro Akesolo, aitaren osaba eta Dimako parroku izanikoaren liburutegia zuten etxeko gela batetan. Berak gogoratzen zuenez, gela zoragarri hartan ohitu zen liburu artean ibiltzen eta bertan hartu zuen bizitza osoan liburuei agertu zien begirunea eta zaletasuna.

2. Larrako ikastetxea: Bertan errotu egin zitzaion etxetik zekarren euskara. Ikastetxe hartan, alde batetik, euskara, gainerako gaien artean irakasten zen, *Latin, griego, gaztelera, historia, literatura...* eta Humanistikako beste gaiekin batera. Bestetik, hainbat irakasle euskaldun sutsu aurkitu zituen bertan. Horrela, esaterako:

– Aita Erroman (Leon Urtiaga) guda zibila hastean komentuko ortuko horma ondoan afusilatu eta lurperatu zutena. Ikastetxeko zuzendari izateaz gainera euskaltzale amorratua zen. Honek jarri zuen ikastetxean, euskaldunek zein euskara ikasten ari zirenek astean egun oso bat euskara hutsean hitz eginez igaron beharra.

– Aita Angelo (Jose) Jauregi, aramaiorra (Gabirel Jauregiren anaia). Honek ematen zien euskal gramatika; era berean *Euskal Esnaleak* antolaturiko sariketetan parte hartzera bultzatu zituen.

Euskal esnalekoek Jose Migel Barandiaran bialdu zuten behin Larrako ikastetxera, euskara irakasteko erabiltzen zuten ikasbidea ikertzera. Norbert Tauer, euskaltzaille txekoslabiarrak ere idatzi zien Madriletik eskolen berri eskatuz.

– Katekesia ere euskaraz ikasten zuten. Horretaz aparte, bertako irakasleek latinetik euskarara itzulpenak eginerazoten zien. Ikastetxe honetan ezagutu zituen Kirikinoren *Abarrak*, Txomin Aguirreren zein Azkueren lanak...

3. Markinako ikastetxea: Aita Urbano Manzisidorrek kondaira euskaraz azaldu zien. Bestalde, bazuten euskarako eskola ere. Campion-en *Gramatica* ikasten hasi zen iparraldeko euskalkiak ezagutzeko bidea hartuz. Ikasle batzu *Euskal esnaleak* antolaturiko sariketetara aurkeztu ziren, horrela, Aita Onaindiak sari bat lortuz.

4. Gasteizen Filosofia ikasketak: (1928-1931). Hemen ez zuten ofizialki euskarako eskolarik. Hala ere, eskola orduetatik kanpo (batez ere udako oporraldi luzeetan zehar) jo eta ke aritu ziren euskara sakontzen. A.Gabirel Jauregik, *Fisia* eta *Kimia* liburuen egileak bultzaturik *Euskal Esnaleak* antolaturiko sariketetan parte hartu zuten; Lino Akesolok Cervantes-en *El Celoso Extremeño* euskaratu zuen *Agure kezkatia* izena emanez, 1930.ean. Saritua izan zen. Aita Onaindiak eta Aita Abasolok ere sari bana jaso zuten. Orduan ikasi zuen, nonbait, antzinatik ohiturazkoa zenez, liburuen bidez lortutako diruak liburutan erabili behar zirelako ikasbidea. Akesolok, sari hartako diruak Azkueren *Iztegia* eta *Morfologia* erosteko erabili zituen.

Era berean, Gasteizen hasi zen, bizitza osoan zehar hain gogoko izango zuen ihardunean, hau da, esaldi jatorrak biltzen “gauzak egoki eta zehatz adierazteko”.

Filosofia amaitzerakoan etxera bidali zuten aldi batetarako osasuna indartzera. Areagotu egin zitzaion ordurako barru-barruan zerabilen euskararako zaletasuna eta garra, batez ere, herri-euskaraganako joera eta maitasuna.

5. Begoñan Teologia ikasketak: (1931-1935). Aldi horretan ezagutu zituen pertsonalki Lauaxeta, Lizardi, Orixe,... *Euskal Erria* aldizkaria irakurtzen zuen.

Aita Onaindiarekin batera, *Onbidea* (Santa Teresaren *Camino de Perfección*) itzuli zuen.

1931.ean *Karmengo argia* sortu zuten karmeldarrek. Idazlerik finenatarikoa izan zen Lino Akesolo ikaslea. Hori zela, nonbait, izendatu zuten apaiz egin berri zela (1935) aldizkariaren zuzendari.

6. Espetxean eta desterruan: Gorago aipatu dugu aldi hori. Carmonan “Beistero” politikari ospetsua irakasle zuela “alemana” ikasi zuen. Euskarako lan batzu ere egin zituen, hala nola, *Salve Mater Misericordiae* euskaratzea edota Toselli-ren Serenataren frantses testuaren ordezkari bat asmatu euskaraz:

Ortzean zear zabiltzen usoak,
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!

Neure erriraiño nintzake egalari
erbestetuaren maitasun agurraren gezinari!

Etsaiak erasota
ara non dan lur jota,
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,
gaur ene gogoa,
espetxeko ordu beltzetan,
maitezko egoetan
zuganaño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,
neure zorigaitzaren azkarri:
zeu, aberri.

Jarraian, esan dugun bezala, gartzelaren ordezkari, Euskal Herritik kanpo bizi behar izan zuen, nahiz eta Iruñean (1942-1943) bi urte inguru egin. Iruñeko egonaldia ezin hobeto etorri zitzaion euskal liburu zaharrak erosi eta biltzeko. Karmeldar fraideen komentuetan lapurtutako hainbat liburu berreskuratu zituen.

7. 1948-1969. urteen artean, irakasle Karmelon: Aldi luze horretan, eskolak emateaz gainera, hainbat liburu itzuli zituen, batez ere, alemanieratik. Hainbat idazlan (89) idatzi. *Salmoak* liburua bizkaieraz jarri, Liturgiako testuak euskaratzen ihardun eta gogor aritu zen euskal biblioteka osotzen.

8. 1963.eko apirilaren 5ean Euskaltzain Oso izendatu zuten, hala ere, ukatu egin zuen izendapena azaroaren 7an. Behar bada, izendapen horren ondorioz jarri zuten, era berean, Euskaltzaindikoko bibliotekari zereginetan urte bereko maiatzaren 25ean. 1965.eko martxoaren 26an Euskaltzain urgazle izendatua izan zen.

Horretaz gainera, euskara alorrean diharduten beste bi Erakundetako partaide ere izan da: hau da, Kardaberaz Bazkunekoa (1970) eta Euskarazaintzakoa (1978).

Hizkuntz alorrean hain kontrajarriak diren erakundeetako (Euskaltzaindikoko urgazle eta Euskarazaintzako buru) partaide izan arren, batean zein bestean ihardun zuen lanean, laguntza eskatzen zitzaion bakoitzean euskararen alde arituz.

9. 1964-1968: Liturgiako testuen itzulpen lanetan. Bizkaiko Eliz- barrutiko Liturgi Batzordeko Buru zereginetan lan eginez. Talde honek oso lan bikaina burutu zuen, orain arte euskalki ezberdinetakoen artean lankidetzan burutu den lanik nagusia delarik (1000 orrialdetik gorako liburu mardula). Bide batez,

Bizkaiko azpieuskalkien batasuna ere lortu zuten, bizkaiera gehien zekiten pertsonak elkarlanean arituz eta Bizkaia osorako testu bakarra lortuz.

10. (1975-1991): Karmelon. azken urte hauek izan dira Lino Akesoloren bizitzako emankorrenak. Berak bideratu zuen *Diccionario de Autoridades de la lengua vasca* deituriko (9 liburukitakoa) hiztegi nagusia egiteaz gainera, hainbat eta hainbat idazlan argitaratu izan ditu. Azken bi urte hauetakoak kontutan izan gabe (29 idazlan eta Joan Gurutzekoaren *lan hautatuak* euskaratzea), 150 idazlan argitaratu zituen aldizkari ezberdinetan. Era berean, lan handia burutu izan du karmeldarron euskal biblioteka hornitzen, liburuak eskuratzen, fotokopiatzen eta abarretan buru-belarri saiatur.

3. AITA LINO AKESOLOREN NORTASUNA

Oso erraza ez bada ere, azken 16 urte hauetan Aita Linorekin bizitzeko aukera izan dudanez, bere nortasuna ezagutzuz, bat-bateko argazki gisa, berarengan honako ezaugarriok azpimarratuko nituzke:

1. Lengile porrokatua: Aipatu dugun bezala “Ora eta labora” esakuna bizitzako abiaburu eta helburu eginik, lanari ekin eta ekin ihardun izan zuen bizitza osoan zehar:

a) Fraide bizitzako eskakizunak zehatz-mehatz betez. Ez zuen inolazko atxakiarik hartzen etxeko halako betebeharrei ihes egiteko. Azken oporretan ere (Dimako Oban) egunero eskaini zuen eukaristia eta gainerako otoitzaldiak egin. Leialtasun handia izan zion apaizgoari zein karmeldar bizitzari.

b) Gainerako alorretan, bizitzan zehar eginiko lanari begiratu baino ez dago, ez dela halakorik alperkerian egunak eginik lortzen konturatzeko. Behar bada lanerako zaletasun hori gehiago neurtu izan balu, gaur egun oraindik bizirik izango genuen gure artean. Azken urteetan, bihotzeko taupagailua jarri ziotenetik, medikuak eta karmeldar nagusiek, behin eta berriro lana mugatzeko esan arren, ez zegoen hari muga jarriko zionik.

2. Isila eta apala: ez zuen gogoko izaten besteen bizitzako gorabeheretan azterka ibiltzerik. Beti izaten genuen gertu etxeko lanik apalenak egiteko (adibidez, jatordu ostean platerak jaso eta garbitzeko). Hala ere, era berean, beti gertu euskara gaitan elkarrizketa biziak egiteko. Ezin izaten zuen irentsi, burua harrokeriez puzturik handinahietan ibiltzeko ohitura zuenik.

3. Egizalea: bai fraide bizitzan bai kanpoko harremanetan. Honek buru-hausterik sortu zion, bere ustetan zuzena ez zena argitzeko, zerbait, idatzirik plazaratu beharra izaten zuenean. Behar bada, horrek, besteen lanak, inoiz, zorrotzegi epaitzera bultzatu zuen. Bere buruari ere lokarri estuegia jartzen zion egizale izate horren ondorioz ziurtasun osoz ibili nahi izateagatik, guk nahi izan baino gutxiago idazten zuela. Horren ondorioz inoizka ernegaldirik izaten bazuen ere arin baretzen zen hutsuneak zuzentzeko borondate onik ikusten zuenean. Azken urteetan, hainbatetan baretu egin zen erizpide zabalagoa eta abegikorragoa hartuz.

4. Esker onekoa: batez ere libururen bat ematen zionarentzat. Nahikoa izaten zen halako oparia, betiko adiskide bihurtzeko. Oso bihozbera zen eta edozerk hunkitzen zuen. Azken urteetako omenaldiek nahikoa kalte egin zioten osasunean, bihotzeko gaitza areagotuz. Zeharo hunkituta geratu zen, adibidez, Dimako herriak eskainitako omenaldian Amurizak eta Lopategik, dohainik parte harturik, egin zioten goraipamena zela eta. Esker onez gogoratzen zuen, egun horretan hartu zuten ardura.

5. Laguntzaile eskuzabala: ez zekien inori ezezkorik ematen. Gero gauez ere lanean aritu behar epeei erantzun ezinik. Hil zenean 700 orrialdetik gorako hiztegi baten inprimategiko probak zituen gainbegiratzeko. Beti genuen gertu laguntza eske zetorren edonori eskua luzatzeko. Kontaezinak dira berak zuzendutako euskal lanak edota azken urteetan Euskal Filologia fakultatean tesiak zein bestelako lanak egin behar eta berarengana aholku edo laguntza eske hurreratutako pertsonak. Urte luzeetan zehar eskuratutako jakituria dohainik eskaintzen jakin zuen, trukean ezer eskatu gabe.

6. Autodidakta: humanistika ikasketak eta Filosofia eta Teologia egitera-koan lortutako jakintza mailaz gainera, etengabeki aritu zen bere kabuz irakurri eta irakurri, jakituria bila. Batez ere, linguistika alorreko gaietan. Unibertsitatera joateko aukerarik ez zuen izan baina, halako jakintza-zentruetan eskuratu ohi den baino iturburu gehiagotik ur gardena edanez zein bere jakinmin asezinari edate-koa emanaz.

7. Irakurle asezina: beraren jakintza zabalaren iturburu edo sorburua, zer esanik ez, irakurketa izan zuen. Bidaietan zein atsedenaldietan berarentzat lagun-rik onena, zer irakurri esku artean edukitzea izaten zuen. Une guztietan libururen bat esku artean zuela ibiltzen zen. Oso berrizale porrokatua zen eta era guztietako liburu eta paperak irakurtzen zituen. Egunkariak, goizean goiz, komen-tukideok lanerako jaiki orduko irakurtzen zituen..

8. Liburuzalea: esandako guztia hala baldin bada ere, ezin aipatu gabe utzi, liburuei zien begirunea. Aita Lino, batez ere, liburuzalea zen. Karmeloko Kar-meldarron euskal zein erdal biblioteca ugaltzeko ahalegin bizietan ihardun zuen beti. Behin baino sarriago etxeraten zen arratsaldeko laurak jota edota berandua-go bazkaldu gabe, baina boltsa liburuz beteta. Honetan komentuetako diruzainen burukominik handiena gertatzen zen, jakina, dirua eskuetara heldu ala, liburutan xahutzeko gertu izaten zelako. Zeletasun hori izan zen, arean, beraren heriotza-ren hurbileko zioa ere. Irailaren 15ean, igande goizean, sukar handia zuelarik meza eskaintzera joan zen “Gurutzeko Alaben” ikastetxera gero handik Bilboko Plaza Berriko “Rastrora” joan nahi zuelako. Gaiuzki zegoela ikusi eta ikastetxetik deitu ondoren etxeko nagusiak zuzenean etxera ekarri zuenean, bere ardurarik handiena “Rastroan” ezagun egindako batek ekartzeko zituen liburuen ardura izan zen.

4. IDAZLANAK

Lerro hauetan idazlan guztien izenak aurkezteko aukerarik ez dagoenez, hiru multzo handitan banatuko ditut, gaindiroki bere lanaren berri izateko:

1. *Diccionario de Autoridades de la lengua vasca.* (9 liburuki, 1976- 1979)

A. Lino Akesoloren hiztegi handia da. Manu Sotak utzitako fitxak oinarritzat harturik, berak urteetan zehar burutuak. Fitxa guztiak berrikusi zituen bertan ageri ziren esaldien egokitasuna ziurtatzeko. Lafitte-eren bidez heldu zitzaion lan hori eskuetara eta lehen urtean Lasa Jnaren laguntza izan bazuen ere, gero ikerketa lana berak bakarrik burutu zuen. Argitaratze lanetan Luis Ortegaren laguntza izan zuen. Arrazoi osoz aitortu zuen Alfontso Irigoienek 1989.eko apirilaren 3an Euskal Telebistako elkarrizketan zein hurrengo eguneko hiztegiaren aurkezpe-nean benetako egile bakarra, hasieratik amaiera arte (Sotak eginiko lana gogoan hartuz) Aita Lino Akesolo izan zela. Hala ere, lana bukatu ondoren, hainbat materiale sartu gabe geratu zela ikusirik hasia zuen oharrak egite lana. Heriotze uanean, jadanik eginak zituen 840 orrialdetan gehiketa edota zuzenketa lanak. Eta, era berean, berak eginiko hiztegiaren zein *Orotariko Euskal Hiztegiaren* ageri ez diren hitz berriak jasoten ere bai, esaterako, Fr. Bartolomeren *Icasiquizunac* liburuko hitz batzu. Honetaz gogoan hartzekoa da J.A.Etxezarragak hiztegi honi buruz idatzia (*Idatz eta Mintz*, 18/19). Beraren lanak eskaintzen duen fidagarritasunaren ondorioz *Orotariko Euskal Hiztegia* egiten ari direnak ere oso gogoan duten adibideen hautaketa egiterakoan, badaezpada ere, Akesolok jasotako gehienak jasoten dituztelarik.

2. Argitaratutako idazlan laburrak: Aita Linok gorago bide batez aipatu izan dugunez, hainbat idazlan labur idatzi zituen aldizkari ezberdinetan (32tan) eta ezizen multzoa (16) erabiliz. Esan dugun bezala, lan horien arteko gehienak, azken bi urte hauetakoak eta beste banakaren bat izan ezik, beraren *Idazlan Guztiak* (2 liburuki) argitalpenean kaleratuak izan ziren. Zenbaki laburretan bilduz honako hauek lirateke gaika:

Lehen liburukian:

* Euskara eta gramatikaren inguruan: 43 idazlan.(5 gazteleraz eta 38 euskaraz). Zenbait argibide eskeintzen dizkigu. Hala ere sorta honetan badira erizpen alorrekoak ere.

* Euskal idazleei buruz: 95 idazlan. (19 gazteleraz eta 72 euskaraz). Guztira 522 orrialde. Aurrerantzean beti aipatu beharrekoak izango dira berak eginiko ikerlanak. Alor hau dugu, bere idazlan laburren artean baliorik handienekoa.

* Euskal literaturaren inguruan: 7 idazlan

Bigarren liburukian:

* Euskara eta biblia: 10 idazlan.

* Euskal testudun idazlanak: 10 idazlan (1 gaztekeraz).

* Kondaira eta biografi-artikulu eta oharrak: 73 idazlan.

* Liburuen barri-emoteak: 43 idazlan.

Multzo honetako lanen artean ere, hainbat ikerlan interesgarri eta iturri bazterrezin ageri da.

Azken urteotako lanak:

Azken urteotan ere, hau da, beraren *Idazlan guztiak* (1989) argitaratuak izan ondoren, hainbat idazlan idatzi ditu. Gehienak *Karmel* aldizkarian. Guztira 30 idazlan: 7 (1989), 14 (1990) eta 7 (1991). Horietaz gainera, azken urteotan Joan gurutzekoaren idazlan hautatuak itzulpenak egiten ihardun du.

3. Itzulpenak: Alor honetan ere lan oparoa egin zuen bizitzan zehar Aita Lino Akesolok. Itzulitako idazlan guztiak laburkiro aurkeztuz honako sorta hau ateratzen zaigu:

a) Gaztelarazko idazkiak: (bereziki, 1952-1962. urteen artean). Latinetik, frantsesetik eta, batez ere, Alemanieratik itzuli izan zituen; ingelesik ere bai bat *“yo escogí el claustro* izena zuena; Guztira, 8 liburu. Alemanieratik gaztelaratuak 2.500 orrialde inguru dira. Gehienak Dinor argitaletxean.

Latinetik: *Misas propias de la Orden Carmelitana*, Iruñea 1984, 90 orr.

Frantsesetik: *La Iglesia y el pecador*, Donostia 1954, 278 orr.

Ingelesetik: Monica Baldwin, *Yo salté la tapia*, Donostia 1957 (parte hartu zuen)

Alemanieratik: Fritz Tillmann, *El maestro llama*, Donostia, 1956, 486 orr.; Walter Nigg, *El secreto de los monjes*, Donostia 1956, 490 orr.; Juan Schuck-Guillermo Neuss, *Historia de la Iglesia de Cristo*, Donostia, 734 orr.; Edith Stein, *La ciencia de la cruz, Estudio sobre S. Juan de la Cruz*, Donostia 1958, 413 orro.; Burgos 1989; Fritz Tillmann, *Elementos de la moral católica*, Donostia 1959, 225 orr.; Erich Przywara, *Criterios católicos*, Donostia 1962, 189 orr.

Euskaratik gaztelarara Bernat D'Echpare-ren *Linguae Vasconum Primitiae*.

b) Euskarazko itzulpenak: Besterik beste:

Prosazkoak:

– M. Cervantes, *Agure kezkatia* (1930)

– *Gurutzeko Joan deunaren esakun mamintsuak* (Karmengo Argia 3 (1933) 209, 234, 313,329)

– *Donekuntza-bidea*, Karmengo Argia 3 (1933, 1934,1935,1936)

– Manuel Fuentes, *Jaungoikoak Beretzat Gura nau. Domingo Iturrate Zorionduna Irukoiztarra*. Bilbo, 1984, 84 orr.

– S.Teresa, *On-bidea (Camino de perfección)* Bilbo, 1963, 279 orr. S. Onaindiarekin batera eginiko itzulpena.

– *Iratzeder-Lerchundi, salmoak*, Bilbo 1964, 262 orr.; A.Linok bizkaieraz jarri eta egokitu zituen.

– Domingo Fernández Mendiola: *Aita Aureliano Karmeldarra* (1887-1963) *Indian 51 urtez apaiz berrien moldatzaile*. Gasteiz, 1983, 59 orr.

– *Sáski-Naski* aldizkarian sei idazlan 181.ean eta beste bat 1984.ean.

– Hugo Makibi Enomiya-Lassalle, Sortaldeko gogoeta-eskolak eta Loiolako Iñaziorena eta Joan Kurutzekoarena, Karmel 1990-3/4, 265-274 (Alemanieratik itzulia).

– *Abel-lur* aldizkarian idazlan batzu.

– Bizkaiko Aurrezki Kutsak aginduta Euskal dantzei buruzkoa (gaztelaniaz bakarrik argitaratu zen).

– Inprimategian: Joan Gurutzekoaren *Lan hautatuak* (Lehendik itzuliak zituen *Karmel mendira igonera* (Subida al monte Carmelo) eta *Gau iluna* (Noche oscura)).

– *Kili-kili* aldizkarirako hainbat eta hainbat. Beste hainbat zuzendu ere bai.

– Mañarikua Jnaren *Historia de la Virgen de Begoña* ere euskaratu zuen orain argitaratu gabe baldin badago ere.

Olerkiak:

Latinetik:

– *Salve Mater: Agur, Ama* (1941)

– *Aserre-egun* (1951)

– *Enau ni, Jauna* (1954)

– *Nun da maitasuna* (1972)

– *Pazko-kanta* (1972)

– *Espiritu Santua* (1972)

– *Agur Jainkoaren Ama* (1977)

– *Maria gure oiua* (1977)

– *Illen otoitzerako* (1978)

– Etab.

Gaztelaniatik:

– *Karmengo Amari abestia* (1951)

– *Zeruan det nik bizia* (S.Teresaren *Vivo sin vivir en mi*) 1952

– *Arin, artzaiak* (1953)

– Jon Gurutzekoarenak: *Cantico espiritual* (karmel 1990-3/4), *Aberik ez ta aberik bai* (ibidem); *Edozein ederren jarrai* (Ibidem), *Gabonetakoa* (Ibidem) *Onbi-dea labur* (Ibidem), *Maitasun-gar bizia* (Karmel 1991-1) *Artzaintxo maitemindua* (Ibidem), *Gau ilunean* (Ibidem) *Maitearen eizan* (Ibidem)

– Era berean itzuli izan ditu beste batzu: Alfredo Gómez Jaime-ren olerki batzu (1967), L.C.Lopez-enak (1967); Jorge Isaac-enak (1967) Kolombiar idazle batzurenak (1968) eta baita Unamuno-renak ere (1970)

c) Euskal idazle zaharren argitalpenak.

– Bernat D'EChepare-ren *Linguae Vasconum Primitiae* gaztelera izulpena duela eta idazkera gaurkotuta.

– Joannes Etcheberri-ren *Noelak eta kanta espiritual berriak*; testu berrikusia, sarrea eta oharrak dituela.

– Bernad Gazteluzar-en *Eguia Catholicac*.

– Gregorio Arrue-eren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza*. Testu berrikusia, sarrea eta oharrak.

– Beste hainbat argitalpenerako liburuak eskuzabalez utzi egin izan ditu.

d) Taldekako lanean:

– Teresa, *On-bidea (Camino de perfección)* Bilbo 1963; Aita Onaindiarekin batera, 279 orr.

– Liturgia liburuen itzulpenak. Donostiako eta Bilboko apezpikuen agirietaatik ere hainbat itzuli zituen.

– *Eguneroko Meza, esku liburua*, Bilbo 1963 (Jaime Kerexeta eta Aita Onaindiaren izenean argitaratua)

– *Kosmos I eta II*, Salamanka (Anaya) 1975

– *Eusko Lurra* (Iñigo Agirre), Donostia, 1976

– Euskaltzaindiko gramatika batzordean lankide izan den bitartean honako liburuok argitaratu ditu batzordeak: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I*, Iruñea 1984.; *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*, Bilbo 1987. *Eraskina*, Bilbo 1987.

e) Isilean burututako lanak:

Lino Akesolok baditu beste zenbait lan ere, beste batzuren izenpean argitaratuak izan direnak. Sarritan zuzenketak egin zizkielako zein goitik beherako orrazketak. Ez da erraza halakoen bilduma egitea. Hori dela eta gerorako, lan sakonago bat egiten den bitartean, horren berri izan dadin Karmelo Etxenagusia-
ren berbak jaso nahi ditut hemen: “Zenbaiti ez ete deutso Linok artikulua baten barri emon, idazlan apal bat zuzendu, ikerketa bat egiteko bideak zabaldu, itzulpen bat egin... Gogoan dot, esaterako, urte askotan euskeratu zituela gure Mixiño-idazkaritzak ataraten zituan paper guztiak, Bilboko parrokia batek asteroko orritxuan argitaratzen eban euskarazko artikulua. Eta orren antzeko beste asko. Ez deutsoe olango lanak egilleari izen andirik, ez dirurik, emoten; baiña laguntza apal jakituna olako lan apaletan sartuta ikustea beti da arrigarri; izan bedi txalogarri be! Niri neuri be ez deust gitxi lagundu A. Linok idazleen lorategi edo antologiak egiterakoan: Idazleen barri emon, zatiak aukeratu, argibide aberatsak eskeini...” (K. Etxenagusia, *Aita Linoren lan ezkutua*, Euskerazaintza 1989, 7.Zkia.,47).

Halako zerbait jaso zen, baita ere, *Eguneroko meza, esku liburua* deritzanean (Bilbo 1963) Jaime Kerexeta eta Aita Onaindiaren izenean argitaratutako liburuan. Hainbat testu, batez ere igandeetakoak Linok euskaratuak izan ziren.

5. EUSKARA BATUAREN AUZIAN ZER NOLAKO JOKERA

Hasteko, Lino Akesolo ez zela, hasiera batetan, euskara baturako emandako zenbait urratsekin ados esan beharra dago. Hau oso ezaguna da; hainbat idazlan idatzi zituen euskara batuari buruz eta kritika zorrotzak egin ere bai; hala ere, beraren kezka nagusia, euskara batua bera baino gehiago, euskara bera zela esatera ausartuko nintzateke, euskal idazleen artean (batueraz zein euskalkiz idatzia) ez baita beti aurkitzen gari hutsez eginiko baserriko ogia. Gogoan izan behar dugu Euskarazaintzako buru izan arren Euskaltzaindiko gramatika batzordean lan egin izan zuela azken urteotan. Aurretik ere hainbat aldiz parte hartu izan zuen Euskaltzaindiaren ageriko bileretan idazle ezberdinei buruzko txostenak aurkeztuz. Ez zegoen, bada, inolaz ere, Euskaltzaindiak hartutako bide guztien aurka; gutxiagorik ere ez. Hala ere, hor ditugu berak eginiko kritikak eta, agian, baita ere, baturantz ematen ari garen bidean kontutan hartzeko erizpideak ere bai.

Eusko Jaurlaritzak irakaskuntza mailan ortografiako arauak ezarri zituenean Euskarako Aholkulari Batzordekoa zen. Bertan onartutako bideak bizkaierazko eskola-testuetan erabiltzekoak ere baziren. Eskola mundutik kanpoko alorretan askatasun handiagoa edukitzearen aldekoa zen. Berak, normalean, bizkaiera klasiakoan idazten zuen. Azken urteotan zabaldu izan diren *dodaz, ebezan, zaudaz, dautsot, deitson...* eta horrelako aditz formen ordez, beste euskalkietako formetatik askoz ere hurbilagokoak diren *ditut, zituen, zaitu, deutsot, deion...* eta abarren aldekoa zen.

Arazo honetan ez zen batzuk nahi izango zuketen adina setati. Harritzekoa bada ere, onartzen zuen euskara batua, standarra edo dena delakoa eskola liburuetan erabiltzea. Gainerakoetan, esan dugun bezala, askatasun handiagoa uztearen aldeko agertzen zen, bereziki hori herriko berezko esamolde eta erabile-
ra jatorrei bidea egiteko zen adinean.

Honetaz bi adibide aipa ditzaket. Bata, urte t'erdia dela argitaratua izan zen *Perpausen erabilera* (Mensajero) liburuari eginiko sarrera. Euskara batuan idatzita dago. Hori bai, idazle trebea izanik, 19 lerrotako sarrera horretan ez da "h" behar duen hitzik agertzen. Bestea, hil baino hamabost egun lehenago, aurkezpen gisa eginiko sarrera bat da: bertan "h" duten hitzak ere ageri dira eta hiru horrialdetako lana euskara batuan idatzita dago, liburuko idazkera batuari oso-osoan egokituta.

Karmel aldizkarian eztabaida antzuak baztertzeko euskara batuaren eta euskalkien artean oreka izatea erabaki genuenean ere, guztiz ados izan zen. Berak bizkaieraz idazten zuen (eta eskertzen diogu euskalkiz bizkaieraren eremuak garenok) eta beste batzuk, oreka horri eusteko, batuan. Ez dugu inoiz horretaz inolako eztabaidarik izan.

6. IDAZKERA

Hitz egiteko eta irakurtzeko ahozkeria iluna (hagin artean ahoskatzen zuelako edo) bazuen ere, idazterakoan aparteko dohainak zituen. Prosaz idazten zuenean, euskara argi eta ulerterrazez egiten zuen. Euskal senez idazten zuen, joskera ezin

hobea erabiliz. Lanak behin eta berriro zuzenduz, zaindu egiten zuen txukuntasuna zein joskeraren jatortasuna.

Honetaz, berari entzundako zerbait kontatu nahi dut. Sermolari batek ordu-beteko sermoi ederra egin zuela eta entzule batek itandu omen zion ea zenbat ordu behar izan zituen halako sermoia idazteko. Eta hark, "hamar ordu"erantzun. Entzunleak jakigura zuen, nonbait, edo nonzerberria zen eta berriro galdetu omen zion: eta ordu erdiko sermoia egiteko zenbat behar izaten duzu. Hark "egun oso bi" erantzun. Besteak, harriturik: eta 10 minututakoa egiteko?. Besteak, horretarako, astebete inguru. Lino Akesolok hala zuzentzen zituen, behin eta berriro, guztiz asetuta geratu arte, bere lanak.

Hain ongi ezagutu zuen E. Erkiaga idazleak honeko idazkera zuela dio: "Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan dana" (*Karmel*, 1989-2,9 orr.)

Jesus Gastañagaren eritzitan, azken aldiko "Bizkaieraz idazlerik onena" izan da (*Diario de Navarra*, 1991-IX-21,48 orr.)

Patxi Altunak honako hau zioen beraren heriotze ostean: "Oraintsu izan nuen eskea Aita Linok eta beste hiru euskal idazlek, Orixe barne, nork bere aldetik egin zituzten San Juan de la Cruz edo Juan Gurutzekoaren "Cantico Espiritual! izeneko olerki gorenaren eta gailenaren itzulpenei buruz artikulua bat idazteko. Han ez nuen esaten baina hemen agertuko dut: Nere ustez onena Aita Linorena. Euskara inork gutxi bezala menderatzen zuen. Bertsoak euskaratzen parerik ez zuen" (*Egunkaria*, 243, 1991-IX- 18).

Beraren itzulpenen argitasuna adierazten duen beste lekuko bat ere badugu eta ez edonor: hain zuzen ere, J.M.Setien, Donostiako apezpikua. Behin, Donostiako apezpikua Begoñako gogarte-etxean zela, berak gaztelaniaz egindako artzain-gutun bat Lino Akesolok euskeratu zuela adierazi zion apaiz-talde bati, nola euskaratu gainera! Setiennen ustez, berak egindako gaztelaniazko orijinala baino argiago eta hobekiago.

Bukatzeko, Aita Lino Akesolo, etenik gabeko irakurketaren bidez jakituria eskuratu duen jankintsu autodidakta, batez ere historiografo, lexikologo, ikertzaile, itzultzaile eta idazle saiolari paregabea izan dugula aitor dezakegu, inolaz ere huts egiteko arriskurik gabe.

Donostia, 1991-XI-29

Patxi Uribarren Leturiaga